

BIZKAIKO GARBIGUNEETAKO ARAUDIA

Sarrera

Araudi honen xedea da GARBIKER MP, AB, SA (aurrerantzean, GARBIKER) garbiguneetako zerbitzua arautzea.

Garbigunea **Etxeko Hondakinen eta Etxeko Hondakinen antzekoen** Gaikako Bilketarako Zentroa da; DOAKOA da, eta birziklatu, berrerabili edo balorizatu daitezkeen materialak eraman ditzakete herritarrek hara.

Bizkaiko Lurralde Historikoko garbiguneak honako hauek dira:

Amorebieta-Etxano	Erandio	Mungia
Amoroto	Gautegiz Arteaga	Muskiz
Bakio	Gernika	Urduña
Barakaldo	Getxo	Santurtzi
Basauri	Gueñes	Sestao
Bermeo	Igorre	Sopela
Derio	Karrantza	Zalla
Durango	Markina	

Era berean, garbigune bakoitzaren jarduketa-eremuaren eragin-esparrua (udalerriak) zehaztuta dago eranskinean.

GARBIGUNEKO ZERBITZUAREN ARAUDIA

1. ATALA.- ZERBITZUA ZEHAZTEA

1. artikulua. Zerbitzuaren xedea.

Zerbitzu honek berrerabiltzeko moduko etxeko hondakinak eta objektuak era egokian kentzeko lana erraztu nahi die erabiltzaileei, helburu hauek lortzeko asmoz:

- Hondakinak kontrolik gabe bota daitezzen saihestea.
- Etxean sortutako eta garbigunean onartzeko moduko hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatzea.
- Garbigunean utzitako hondakinen ingurumen-kudeaketa zuzena erraztea.
- Balorizatzeko moduko materialak zuzen bereiztea.

- Berrerabiltzeko eta, hala behar denean, zuzenean birziklatzeko utzi diren materialak eta objektuak berreskuratzea.

2. artikulua. Garbiguneen ustiapeneko arduraduna.

Garbigunearen ustiapenaren erantzukizuna GARBIKER enpresa publikoarena da. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren Ingurumen Zuzendaritzara atxikita dago enpresa, eta garbiguneak kudeatzen ditu, ustiapeneko araudi honetan jasotako aginduen arabera.

3. artikulua. Garbiguneen erabiltzaileak.

Oro har, Bizkaiko udalerrietan hondakinak sortzen dituzten herritarrek erabiltzeko dira garbiguneak.

Horrez gain, hauek izango dira erabiltzaileak:

- Etxeko obra txikietako autonomoak.
- Bizkaiko bulegoak eta saltoki txikiak.

Salbuespen modura, eta kasu bakoitzean finkatutako erabileretarako, hauek izango dira garbiguneen erabiltzaileak:

- Nekazariak, hondakin fitosanitarioen ontziak uzteko.
- Araudi honen xedapen gehigarrietan azaldutako erakundeak.

Kasu guztietan, garbiguneak erabiltzeko, ezinbestekoa izango da araudi hau eta Garbikerren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren hondakinak tratatzeko bestelako instalazioen araudiak ez betetzeagatik ezarritako zehapenik ez izatea.

4. artikulua. Doako zerbitzua.

Garbiguneen erabiltzaile mota eta xedea kontuan izanda, zerbitzua doakoa izango da.

5. artikulua. Onartzeko moduko hondakinak.

Hondakin-mota hauek onartuko dira:

5.1 Oro har onartzeko moduko hondakinak

- **Harrizko EEHak (obra-hondakinak):** adreiluak, hormigoia, baldosak, zeramika, konketak, komunak, etab. (uralita eta fibrozementuzko elementuak kenduta).
- **Beste EEH batzuk:** zura (parketa, tarima, markoak...), kristalak, plastikoak, atepak,

leihoak, etab.

- **EGURRA** (elementu osoak, ez hondarrak): armairuak, aulkiak, kaxak, ateak, oheak, paletak, etab.
- **PLASTIKOAK**: pertsianak, aulkiak, mahaiak, jostailuak, enbalajea, polietilenoazko bidoiak, film-plastikoa, porexa, etab.
- **METALAK ETA TXATARRA**: erradiadoreak, bizikletak, harraskak, antenak, aulkiak, sukaldeko ontziak edo antzekoak (zartaginak, lapikoak, etab.), bidoiak (hondakin arriskutsurik izan ez dutenak), etab.
- **HONDAKIN HANDIAK** (ZUR, PLASTIKO edo METALTZAT onartzeko modukoak ez direnak): altzariak, lastairak, somierrak, etab.
- **TEEH HANDIAK (tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak)**: hozkailuak, arropa-garbigailuak, ontzi-garbigailuak, labeak, mikrouhin labeak, panel fotovoltaikoak, etab.
- **TEEH TXIKIAK (tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak)**: DVD irakurgailuak, xurgagailua, bideo-kamerak eta 50 zentimetrotik beherako bestelako tresna elektriko eta elektronikoak.
- **PANTAILAK ETA MONITOREAK**: telebistak eta monitore lauak.
- **INFORMATIKAKO ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO EKIPAMENDUAK**: mahai gaineko ordenagailuak eta eramangarriak, tabletak, PDAk, inprimagailuak, eta bestelako periferikoak, telefonoak, mugikorrak, etab.
- **PAPERA ETA KARTOIA**: kartoizko kaxak, enbalajeak, aldizkariak, egunkariak, etab.
- **LOREZAINZA**: inausketa-hondarrak, zuhaixkak, etab.

- **BERRERABILTZeko MODUKO OBJEKTUAK. BERRERABILTZeko ETXOLETAN** utziko dira berriz erabiltzeko moduan dauden tresnak, adibidez, altzariak (armairuak, mahaiak, aulkiak, etab.), etxetresna elektrikoak (arropa-garbigailuak, ontzi-garbigailuak, lehorgailuak, mikrouhin-labeak, etab.), gailu elektriko eta elektroniko txikiak, telebistak, jostailuak, bazarra, liburuak, etab.

BASAURI, BARAKALDO, DURANGO, ERANDIO, GERNIKA, GETXO, GUEÑES, IGORRE eta MARKINAKO garbiguneetan (garbigune zentraletan), eremu bat egongo da, erabiltzaileek utzi eta berriz erabiltzeko moduan dauden objektuak eta tresnak berrerabiltzeko.

- **HONDAKIN FITOSANITARIOEN EDUKIONTZIAK**. Biltegitratzeko baldintza bereziak aintzat hartuta, **garbigune hauetan baizik ez dira bilduko**: DERIO, DURANGO, GERNIKA, GUEÑES, IGORRE, KARRANTZA, MARKINA, MUNGIA

eta SANTURTZI.

5.2 Onartzeko moduko hondakinak, soilik etxeakoak:

Edozein garbigunetan, 6. artikuluan hondakin eta bilketa batzuentzat ezarritako mugak kontuan izanda:

- (*) Industrialak ez diren ibilgailuen pneumatikoak, hagunetik edo metalezko ataletatik bereizita.
- Sukaldean erabilitako olioak (edukiontzia itxian).
- (*) (**) Automozioan erabilitako olioak (edukiontzia itxian).
- (*) (**) Olio-iragazkiak.
- Metagailuak: autoen bateriak eta metagailuak, oro har.
- Era guztietako pilak.
- Fluoreszenteak.
- Toner-kartutxoak.
- Telefono mugikorrak.
- CDak, DVDak, bideo-zintak eta kaseteak.
- Merkurio-termometroak.
- Plastikozko eta aluminiozko kafe-kapsulak.
- Produktu fotokimikoak (erradiografiak, filmak eta paper fotografikoa, etab.).

(*) Biltegitzeko muga duten hondakinak.

(**) Gauegiz Arteagako garbigunean izan ezik, kokagunearen (Urdabaiko erreserba) baldintza berezien ondorioz.

Biltegitzeko baldintza bereziak aintzat hartuta, BASAURI, BARAKALDO, DURANGO, ERANDIO, GERNIKA, GETXO, GUEÑES, IGORRE eta MARKINAKO garbiguneetan soilik:

- Pinturak, bernizak, disolbatzaileak, kolak, desugertzaileak, agoarras sintetikoak, tindagaiak, zur-babesleak, plastikozko edo metalezko edukiontzia itxian.
- Aerosolak.
- Substantzia arriskutsuek blaitutako xurgatzaileak (trapuak, eskularruak, etab.).

5.3 Bestelako hondakinak

Zerrenda honetan agertzen ez diren bestelako etxeko hondakinak, beren ezaugarriak ikusita garbigune batean uzteko modukoak badira, Garbikerren berariazko baimena beharko da.

Zerrenda honetan, etorkizun hurbilean beharrezkotzat eta egokitzat jotzen diren hondakinak sartu ahal izango dira, Garbikerrek ebazpena egin ondoren; era berean, hondakinak kendu ahal izango dira, biltzeko eta tratatzeko lanak optimizatzeke beharrezkotzat hartzen bada.

Aldaketaren bat eginez gero, araudi hau behar bezala eguneratu beharko da.

6. artikulua. Kopuruak eta mugak.

3.500 kilo baino gutxiagoko gehienezko pisu baimendua (GPB) duten ibilgailuek soilik utzi ahal izango dute zama.

Oro har eta mota guztietako hondakinei dagokienez, dagokion edukiontzian lekurik ez badago, langileek adieraziko dute gertueneko garbigunean uzteko aukerarik baden.

Hondakinen tratamendu egokia bermatu ahal izan dadin eta herritarrek garbiguneak behar bezala balia ditzaten, baldintza eta muga jakin batzuk ezarri dira zenbait hondakin onargarri biltzeko garaian, ondoren zehaztuko dugun moduan:

- **HARRIZKO EEHak:**

- a) Garbigune bakoitzaren **eraginpeko esparruan** kokatuta dauden udalerrietako EEHak soilik onartuko dira (araudi honetako **eranskinaren** arabera).
- b) Aste bakoitzean honako hauek onartuko dira: 2,5 m³ ageriko bolumenean edo 1.000 kg lan-lizentzia bakoitzeko (25 kg-ko 40 zakuren baliokidea). Edozein kasutan, lizentzia bakoitzeko, garbigunean 6 aldiz sartzeko edota 4.000 kg uzteko aukera egongo da, gehienez.
- c) Kasu bakoitzean, dagokion udalak emandako obra-lizentziaren kopia bat aurkeztu beharko da, horren identifikazio-zenbakia adierazita.

Lizentziaren iraunaldia: bertan adierazten dena edo, adierazten ez bada, 6 hilabete.

Gordailuaren egiaztagiria eskatzeko gehieneko epea **urtebetekoa (1)** izango da, egindako lehen gordailuaren egunetik zenbatzen hasita.

Lizentziarik behar ez duten obra txikiei dagokienez, aldez aurretik NANA aurkeztuta, norbere eraginpeko esparruko garbigunera 10 hondakin-zaku eraman ahal izango dira pertsonako/ibilgailuko eta asteko.

Bigarren etxebizitza bada, egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da (OHZren ordainagiria, alokairu-kontratua edo antzekoa).

- **Beste EEH batzuk:**

- a) Garbigune bakoitzaren **eraginpeko esparruan** kokatuta dauden udalerrietako EEHak soilik onartuko dira (araudi honetako **eranskinaren** arabera).
- b) Aste bakoitzean honako hauek onartuko dira: 2,5m³ ageriko bolumenean edo 1.000 kg, lan-lizentzia bakoitzeko (25 kg-ko 40 zakuren baliokidea). Edozein kasutan, lizentzia bakoitzeko, garbigunean 6 aldiz sartzeko edota 4.000 kg uzteko aukera egongo da, gehienez.
- c) Unitateak badira, 10 ate, 10 leiho, 10 marko, eta abar onar daitezke lizentzia bakoitzeko, eta, gehienez, garbigunean 2 aldiz sartzeko aukera egongo da, lizentzia bakoitzeko.
- d) Kasu bakoitzean, dagokion Udalak emandako obra-lizentziaren kopia bat aurkeztu beharko da, horren identifikazio-zenbakia adierazita.

Lizentziaren iraunaldia: bertan adierazten dena edo, adierazten ez bada, 6 hilabete.

- e) Lizentziarik behar ez duten obra txikiei dagokienez, aldez aurretik NANA edo, bigarren etxebizitzaren kasuan, egiaztatzea aurkeztuta, norbere eraginpeko esparruko garbigunera 10 hondakin-zaku eraman ahal izango dira pertsonako/ibilgailuko eta asteko, edo, unitateen kasuan, 5 ate, 5 leiho, 5 marko eta abar, pertsonako/ibilgailuko eta sei hilabeteko.

- **PNEUMATIKOAK (ibilgailu EZ industrialenak):**

- a) Garbigune bakoitzaren **eraginpeko esparruan** kokatuta dauden udalerrietako pneumatikoak soilik onartuko dira (araudi honetako **eranskinaren** arabera).
- b) Gehienez ere 5 unitate erabiltzaileko urtean. Haguna eta goma bereizita egon beharko dira, bakoitza dagokion edukiontzian uzteko.

- c) Pneumatiko berrien erosketa-faktura aurkeztu beharko da, zaharrak edukiontzian uzteko.
- **AUTOMOZIOAN ERABILITAKO OLIOA (edukiontzi itxian):**
 - a) Edozein udalerritako hondakinak onartuko dira, baina aholkatzen da **eraginpeko esparruan** kokatuta dagoen udalerriri dagokion garbigunea erabiltzea.
 - b) Kopuru onargarria 10 litrora mugatuta dago, erabiltzaileko eta hilabeteko.
- **OLIO-IRAGAZKIAK:**
 - a) Edozein udalerritako hondakinak onartuko dira, baina aholkatzen da **eraginpeko esparruan** kokatuta dagoen udalerriri dagokion garbigunea erabiltzea.
 - b) Kopuru onargarria unitate batera (1) mugatuta dago, erabiltzaileko eta hilabeteko.
- **ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK**
 - a) BASAURI, BARAKALDO, DURANGO, ERANDIO, GERNIKA, GETXO, GUEÑES, IGORRE eta MARKINAKO garbiguneetan baizik ez dira bilduko.
 - b) Erabiltzaile bakoitzari hilean **gehienez 10 kg-ko 5 edukiontzi onartuko zaizkio**, honakoak kontuan hartuta, guztira:
 - Pinturak, bernizak, disolbatzaileak, kolak, desugertzaileak, agoarras sintetikoa, tindagaiak, zur-babesleak, plastikozko edo metalezko edukiontzi itxian.
 - Aerosolak.

Muga horiek gainditzen dituen edozein deskargatarako, edo bere bolumen edo tipologiagatik ezohikoa denean, Garbikerren aurretiazko eta idatzizko baimena beharko da.

7. artikulua. Onartzen ez diren hondakinak.

Hurrengo zerrendan, onartzen ez diren hondakinak agertzen dira. Zerrendak orientatzeko xedea du; ez da zehatza hondakinak identifikatzeko.

- Ehunak: berrerabiltzeko edukiontzien bidez bilduko dira, kalean bertan.

- Farmazietako hondakinak, sendagaiak edo erabilera terapeutikoko produktuak; farmazietan utzi daitezke.
- Etxeko hondakin organikoak.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak.
- Hildako animaliak eta animalien hondakinak, Gizakiaren kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei ezarri ahal zaizkien osasun-arauak finkatzen dituen 1774/2002 (EB) Erregelamenduak eta bestelako arau bereziek arautzen dituztenak.
- Hondakin likidoak edo likatsuak.
- Hondakin infekziosoak.
- Ospitaleetako hondakinak.
- Fibrozementua (uralita).
- Butano-, oxigeno- edo kanpin-bonbonak.
- Erregaiak: etxeko estufetakoa, gasolina, etab.
- Isuriz gero, leherkorrak, korrosiboak, oxidatzaileak, oso sukoiak edo sukoiak izan daitezkeen hondakinak.
- Intsektizidak eta parasitoen kontrakoak.
- Hondakin erradioaktiboak edo meatzaritzakoak.
- Bidea garbitzean, aisiarako eremuetan eta hondartzetan sortutako hondakinak.
- Identifikatu gabeko edo anbiguotasunez identifikatutako hondakinak.

Aurrekoen antzekotzat jo daitezkeen eta/edo Garbikerrek onartezintzat jotzen dituen bestelako hondakinak.

8. artikulua. Garbiguneetan utzitako hondakinak kudeatzea.

8.1 Hondakinak.

Indarrean dagoen araudia betez eta garbiguneetan utzitako hondakin guztien ingurumeneko trazabilitate egokia bermatzeko, tratatutako hondakin bakoitzak – arriskutsua izan zein ez izan– duen baimendutako kudeatzaile bereziekin koordinatuko da Garbiker.

Debekatuta dago garbiguneetan ondorio horretarako jarritako edukiontzietara sartzea eta hondakinak ateratzea.

Hala ere, salbuespen gisa, Garbikerren idatzizko baimen motibatua izanez gero, haietara sartu ahal izango da.

8.2 Berrerabiltzeko objektuak.

Kooperari Ingurumenarekin zerbitzu osoa egiteko sinatutako kontratuaren arabera egiten da kudeaketa. Zerbitzuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan sortutako etxe hondakinak berriz erabiltzeko prestatu behar dira

Erabiltzaileak ezin dira berrerabiltzeko etxoletan sartu, eta ezin dituzte objektuak kendu.

Hala ere, salbuespen gisa, Garbikerren idatzizko baimen motibatua izanez gero, berrerabiltzeko etxoletako objektuak hartu ahal izango da.

2. ATALA. ZERBITZUA EGITEKO MODUA

9. artikulua. Jendea artatzeko ordutegia:

Garbigune hauetan: **BASAURI, BARAKALDO, DURANGO, ERANDIO, GERNIKA, GETXO, GUEÑES, IGORRE eta MARKINA**

- Astelehenetik larunbatera: 09:00etatik 13:25era eta 15:30etik 18:00etara.
- Igandeetan: 09:00etatik 15:00etara.

Gainerako garbiguneak:

- Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 13:25era eta 15:30etik 18:00etara.
- Larunbatetan: 09:00etatik 13:25era.

Finkatutako ordutegitik kanpo, ezin da garbiguneetan sartu, GARBIKERek aurrez baimendutako salbuespeneko egoeretan izan ezik.

10. artikulua. Sarbidearen kontrola.

Garbigunera sartzeko baimena Garbikerrek horretarako izendatutako langileak eman beharko du (garbigune bakoitzeko langile arduradunak).

Garbiguneko zerbitzua erabili aurretik, garbigunearen arduradunak identifikatzeko eta/edo dagozkion egiaztagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

Horrez gain, garbigunean utzi beharreko elementu guztiak ikuskatu ahal izango ditu.

Garbiguneen sarreran, informazio-taula bat jarriko da, eta honako hauek zehaztuko dira:

- Instalazioaren izena, helbidea eta jabea den entitate publikoa.
- Ustiatzen duen erakundearen izena.
- Garbigunearen ordutegia.
- Onartutako hondakinak.
- Harremanetarako telefonoa.

Baimenik ez duten pertsonak galarazita dute garbiguneetara sartzea, eta, eginez gero, zehapena jarri ahal izango zaie. Instalazioak behar bezala erabiltzen ez dituzten pertsonen instalazioetatik joateko eskatu ahal izango zaie. Jokabide desegoki horiek errepikatuz gero, garbigunera sartzeko baimena ukatu ahal izango da.

Garbiguneetara sartzen diren kanpoko pertsonak zehatz-mehatz bete beharko dituzte garbiguneko ustiapenaren arduradunak emandako argibideak.

Garbiguneetara sartutako bisitek bertako langile kualifikatuekin batera joan beharko dute.

11. artikulua. Entregako kontrola. Zaintza.

Garbiguneko langileak autoritate aski du araudi honetan sartuta ez dagoen edozein hondakin onartzeko edo baztertzeke.

Langile horrek eginkizun hauek beteko ditu erabiltzaileekin:

1. Erabiltzailea, utzitako hondakin-kopurua, jatorria eta tipologia identifikatzea.
2. Erabiltzaileari aholkuak ematea hondakinak uztean.
3. Onargarriak ez diren materialak uztea debekatzea.
4. Erabiltzaileen eta materialen onarpen eta sarrerako erregistroa egitea.
5. Baimenik ez duten pertsonak hondakinak ken edo bila ditzaten saihestea.
6. Udalak emandako obra-lizentziaren ziurtagiria kontrastatzea.
7. Berrerabiltzeko etxoletako hondakinei lehentasuna ematea, horrelakoak dituzten garbiguneetan (BASAURI, BARAKALDO, DURANGO, ERANDIO, GERNIKA, GETXO, GUEÑES, IGORRE eta MARKINA).

12. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizunak eta betebeharrak.

- Erabiltzaileak une oro bete beharko ditu garbigunearen arduradunak emandako argibideak.
- Adin txikikoekin esparrura sartzeko, haien ardura duen erabiltzaileak garbiguneko

arauak betearazi beharko die, batez ere segurtasunari eta istripuen prebentzioko neurriei buruzkoak.

- Ezingo da animaliekin sartu esparrura; hala ere, animaliak une oro ibilgailuen barruan badaude, sartu ahal izango dira. Inguruabar horiek behar bezala betetzeko ardura izango du erabiltzaileak.
- Eskatutako informazioa emango die langileei, zerbitzua ondo egiteko (hondakinaren jatorria, mota, gutxi gorabeherako kopurua, identifikazio-datuak, etab.).
- Materialak haien izaeraren arabera esleitutako edukiontzietan jarriko ditu, txukun.
- Hondakinak deskargatzeko, ahalik eta eragozpen gutxien sortuko du, batez ere zarata aldetik.
- Hondakinak utzi ondoren, hala behar bada, eremu hori garbituko du.
- Behar bezala mugituko da, abiadura egokian, une oro sarbidea libre utzita, eta baimendutako batez besteko pisua 3.500 kg-tik beherakoa duten ibilgailuetan.
- Araudi honetan hondakinak biltzeari buruz finkatutako mugak errespetatu beharko ditu.

3. ATALA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

14. artikulua. Arau-haustek.

Araudi honetan erregulatutako gaien inguruan, administrazio-mailako arau-haustek dira hemen jasotako arauen aurka jotzen duten ekintzak edo ez egiteak.

Arau-hauste oso larriak dira honako hauek:

- Garbiguneko langile arduradunei eraso egitea edota begirunerik gabe aritzea.
- Ekipamendu edo instalazioetan nahita kalteak eragitea.
- Zerbitzuaren ardura duten langileen oharrak ez betetzea.
- Langile arduradunen baimenik gabe garbiguneetako hondakinak jasotzea.

Arau-hauste larriak:

- Hondakinaren ezaugarriei, kopuruari edo jatorriari buruz eskatutako informazioa emateari uko egitea.
- Era desegokian bildutako hondakinak jasotzeari eta garbitzeari uko egitea.
- Hondakin ez onargarriak uztea edo hondakinak nahastea.
- Hondakinak garbigune ondoko kanpoaldean uztea, irekiera-ordutegian edo ordutegi horretatik kanpo.

Arau-hauste arinak:

- Hondakinak beren edukiontzietan edo dagokien lekuetan ez uztea.
- Araudi honetan finkatuta dagoena hausten duen beste edozein arau-hauste edo ez-egite.

15. artikulua. Zehapenak.

Garbikerrek horretarako izendatutako barne organoak izango du arau-hausteei eragindako zigorra ezartzeko gaitasuna.

Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteetako bakoitza zigortu ahal izango da, ondorengo eskala aintzat hartuta:

- Arau-hauste oso larriak: garbiguneko zerbitzua erabiltzeko 24 hilabeteko debekua.
- Arau-hauste larriak: garbiguneko zerbitzua erabiltzeko 3 hilabeteko debekua.
- Arau-hauste arinak: ohartarazpena.

Zehapen horiek ezartzeko, aintzat hartuko dira ondorengo hauek: asmo txarrez jardun izana edo ez, errepikatu izana edo ez, eta eragindako kalteen ezaugarriak.

Zigor horiek jasotzeaz gain, arau-hausleak kaltea jasandako gauzak jatorrizko egoerara itzularazi beharko ditu, eta haren arau-haustea eragindako kalte-ordainak ordaindu, Garbikerreko zerbitzu teknikoek eta juridikoek haien ebaluazioa egin ostean.

Berrezartzeko eginkizunak bete ezean, arau-hauslearen kontura ekingo zaio betearazte subsidiarioa gauzatzeari, kostuak hark ordainduta.

Zigortzeko prozeduraren arabera, kasuari dagokion espedienteari hasiera eman, eta izapideak egin beharko dira.

Araudi honetan aurreikusitako edozein zigor ezarri izanak ez dio zigortuari inolako salbuespenik ekarriko erantzukizun zibil edo penalarik dagozkion arloetan hark egin ahal dituen ekintzetan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Tokiko administrazioa.

Bizkaiko tokiko erakundeek, haien entitateek eta erakunde autonomoek eskura izango dituzte garbiguneak ematen dituen zerbitzuak, Garbikerren ebazpen bidez aldeztu aurretik baimena emanda. Baimen hori aldi behingoa izango da, eta garatu beharreko ekintzari lotuta egongo da. Baimen horretan, kasu bakoitzean onartutako zerbitzua zehaztu beharko da.

Halaber, Garbikerrekin adostutako lankidetzak hitzarmenen bidez, tokiko erakundeek instalazioak erabili ahal izango dituzte hondakinak gutxitzeko eta haien trataera hobeto kudeatzeko balio duten jardueretarako. Hitzarmen horretan, tokiko erakunde bakoitzarentzat onartutako zerbitzua zehaztu beharko da. Elkarren artean bateraezinak diren eskaera bat baino gehiago izanez gero, lehentasuna izango du garbigunea eraikitzeko lurrak laga zituzten udalek.

Bigarren xedapen gehigarria. Bestelako lankidetzak-akordioak.

Era berean, Garbikerrek lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango ditu garbiguneak erabiltzeko, Bizkaian lan egiten duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin, betiere, baldin eta:

- Hitzarmen horiek ez badute eraginik garbiguneek herritar partikularrei lehentasunez eman beharreko zerbitzuan.
- Hitzarmen horien bidez onura jaso duen erakundearen antzeko beste batzuk diskriminatzen ez badira.

ERANSKINA GARBIGUNEEN ERAGIN-ESPARRUA

Jarraian daude garbigune bakoitzaren **eraginpeko udalerriak**, Erregelamendu honetan zerrendatutako hondakin batzuk onartzeko mugak kontuan izanda.

AMOREBIETA-ETXANOKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Amorebieta-Etxano

AMOROTOKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Amoroto, Berriatua, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio eta Mendexa

BAKIOKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Bakio, Lemoiz

BARAKALDOKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Barakaldo eta Alonsotegi

BASAURIKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Basauri, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Zeberio, Zaratamo

BERMEOKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Bermeo, Busturia, Mundaka, Sukarrieta

DERIOKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio

DURANGOKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Durango, Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar

ERANDIOKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Erandio, Leioa

GAUTEGIZ ARTEAGAKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Gautegiz Arteaga, Ea, Elantxobe, Ereño, Ibarangelu, Kortezubi, Nabarniz

GERNIKAKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Gernika, Ajangiz, Arratzu, Errigoiti, Forua, Mendata, Morga, Murueta, Muxika

GETXOKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Getxo, Berango

GUEÑESKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Gueñes, Galdames, Gordexola

IGORREKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Igorre, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri

KARRANTZAKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lanestosa

MARKINAKO* GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Markina-Xemein, Aulesti, Etxebarria, Munitibar-Arbatzegi, Ondarroa, Ziortza-Bolibar, Berriatua

MUNGIAKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Mungia, Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Meñaka

MUSKIZKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Muskiz, Abanto-Zierbena eta Zierbena

URDUÑAKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Urduña/Orduña, Orozko

SANTURTZIKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Santurtzi, Portugalete, Ortuella

SESTAOKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Sestao, Valle de Trápaga-Trapagaran

SOPELAKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Sopela, Barrika, Berango, Gorniz, Plentzia, Urduliz

ZALLAKO GARBIGUNEA

Eragin-esparruko udalerriak: Zalla, Artzentales, Balmaseda, Sopuerta, Trucios-Turtzioz

(*) GARBIGUNE ZENTRALAK